

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OGASUN ETA FINANTZA SAILA

## 716

*AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 28koa, Ogasun eta Finantzatzeko sailburuarena, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiko kide titularrak kargutik kendu eta kide titular izateko beste batzuk izendatzeko dena.*

Martxoaren 22ko 134/1994 Dekretuaren bitartez, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiaren osaera eta karguak aldatzen dira. Bada, dekretu horretako azken xedapenatarik lehengoak ahalmenak ematen dizkio Ogasun eta Finantzetzako sailburuari, aipatu epaitegiko kideak agindu bidez izendatzeko.

Aipatu xedapenean ezarritakoa betetzeko, eta indarrean diren legezko xedapenek ematen dizkidaten ahalmenez baliatuaz honako hau,

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Kargutik kentzea.

Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiko kide titular kargutik kentzea honakoak hauek: Karmele Ugarriza Izarra eta Francisco Javier Arratibel Rauleaga.

2. artikulua.– Izendapenak.

Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiko kide titular izendatzea honako hauek: José Luis España Guzmán eta José Ramón Martínez Martínez.

Goiko lerroaldean aipatutakoek Ogasun eta Finantza Sailarekiko adskripzioa galduko balute, berehala utziko liokete Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiko kide izateari.

3. artikulua.– Indarra hartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 28a.

Ogasun eta Finantzetzako sailburua,  
RICARDO GAZAGAECHEVARRIA BASTIDA.